

Bero-beroan

Urola Kostako “Hitza”k kirol aldizkaria eta webgunea egingo ditu

UROLA KOSTAKO Udal Elkarteko arduradunek Kirola Euskaraz programa aurkeztu dute, eta besteren artean, aldizkaria eta webgunea egingo dituztela aurreikusi dute. Udal Elkarteak antolatutako lehiaketa *Hitzak* irabazi du. Aldizkaria datorren udaberrian kaleratuko da, 12 eta 16 orri artean izango ditu eta bi hilean behin banatuko da.

100 hizkuntza EAEn

IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokiak eta Unesco Etxearen Amarauna taldeak *Hizkuntza eta Immigrazioa* izeneko ikerketaren emaitzak aurkeztu dituzte. Hainbat daturen artean nabar-

mentzekoa da EAEn ehun hizkuntza hitz egiten direla, gehienak afrikarrak. Euskara-gaztelania eztabaidaz harago badago nora begiratu. Carme Junyent hizkuntzalari katalanak *II. Hizkuntzak eta Immigrazioa* Kongresuan esan duen moduan, “hizkuntza berriek euskara berriro kokatzeko balio behar digute”. Katalunian ehun ez, baina hizkuntza gehiago dituzte. Hari horri tiraka, Dolors Solá immigrazio aholkulariak *Katalunia, immigrazio-berria* izeneko artikulu mardula argitaratu du *Hizkuntzean*: www.euskara.euskadi.net/r59-bphizk/eu/#

“Euskararen erabilera ez sexista” gidaliburua

EMAKUNDEK argitaratu du gidaliburua eta erabilera sexista saihesteko

aholkuak eta adibideak eman ditu. Generoaren azterketa egiterakoan, besteak beste gai hauek jorratu ditu: Hitanoaren erabilera, “gizona” hitzaren eta “giz-” erroaren erabilera, gaztelerazko maileguak, “andereñoa” hitza eta “mari-” osagaia. Hiztegietan aurkitutako adibide desegokiak ere badakartza gidaliburuak.

BAHEA

Pako Aristik *Euskara salbatzeko dekalogoan, Berrian*, esanak: “Utzi korritzeari euskararen alde. Utzi maratoniak. Karrera ziztrin bat presatzen ematen duzuen denbora piloak, zientoka ordu horiek euskarari eskaini ez zaizkion orduak dira. Susmoa daukat zuen alarde fisiko eta jendetsuak benetako ardurari ihes egiteko amarruak baino ez direla. Hizkuntza batekin lau gauza egin daitezke: hitz egin, irakurri, idatzi edota produktuak erosi eta dastatu”.

Carlos Pérez Nieves Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak *hizkuntza eredu berria kontuan hartuta Berrian* esanak: “Agian, B2 mailara iritsi beharrean B1ean geratu beharko dira ikasleak. Finean, euskaraz ikasten dutenek gainontzekoen ingeles gaitasun bera eduki beharko dute. Eta horretarako, daukaten bakartze murgiltze prozesuarekin amaitu behar bada, amaituko dugu”.

Karmele Rotaetxe soziolinguistak *El Paísen* esanak: “Euskararen kasuan, gaitzena gramatika da. Hori muga objektiboa da euskara ikasi nahi dutenentzat. Horregatik, beharbada apur bat erraztu beharko genuke irakasten den euskara, erabilera ere erraztearren. Zergatik derri-gortu ‘diezazkiokegu’ eta horrelako formak ikastera, ‘ahal’ aditza erabilita errazagoa baldin bada?”.

TALAIAN

Galerak nazionalizatzea

AEBen zabor-hipoteken krisia gertatu zenetik, iazko abuztutik, behin eta berriro egin dira finantza sisteman likidazio injekzioak. Sistema horrek 600.000 milioi dolarreko galera sorrarazi izan dezake, orain arte 200.000 milioi dolarrekoa baino ez badute onartu ere. Zertan datza erreserba federala eta lau banku zentral (europarra barne) elkarlanean egiten ari diren operazio hori? Finantza sistemari 135.000 milioi euroko likidazioa egiten zaio inork nahi ez dituen aktibo hipotekarioen (zabor hipoteken) truke. Ondorioz, banku zentralak abal emaila modura jokatzen dute. Likidazioa injektatzeko erabakia munduko moneta agintari handienek hartu dute, kapitalismo gordinaren kudeatzaileak diren agintariak. Nazioarteko Moneta Funtseko (NMF) John Lipsky-k gobernuek aukera guztiak aztertu behar dituztela adierazi du, “baita finantza sistema babesteko diru publikoa erabiltzea ere”.

Ikus dezakezue kapitalismo bortitzenaren adierazle nagusiek zer nolako ideia duten “interbentzionismoa” delakoaz. Nazionalizazioaren aurkari sutsuak, hain liberalak eta merkatu librearen defendatzaile diren horiek, noiz entzun dituzue irabazien gaineko esku hartzeaz hizketan? Inoiz ere ez. Galeren nazionalizazioa nahi dute, hau da, finantzariak eta euren erakundeak kudeatzen jakin ez duten bankarien arazoak diru publikoarekin gainditzea. Kapitalismoak, hain bortitza izanik, nazionalizazioa bere ezaugarritzat erabiltzen du. Baina, argi dago, beraien zorraz nazionalizatzekeo interesa baino ez dute. Ez irabaziak. Non daude astakeria horiek onartzen dituzten antikapitalistak, erakundeak, alderdiak eta sindikatuak?

Juan Mari Arregi